

## Autoestima hobetzeko moduak

Xabier Arrazolak eskaini ditu ▶ 7



## AHT-z eta eredu berriez ezbaian

**GAIA** ▶ Trenaren aurkako arrazoiak eta egitasmoaren egoera azaldu zuten mahai-inguruko partaideek

**KANPAINA** ▶ Eusko Jaurlaritzaren kanpaina eta desinformazioa salatu zuen Alvarezek ▶ 2



Jende ugari elkartu zen herenegun Kultur Etxean. LEIRE MONTES



## Giro ona eta partaide asko Olinpiadan

**IBARRA** ▶ Xoplako taldeak gelditu dira lehen bi postuetan eta Ibarako Kirol Elkarteak izan da hirugarren; jende berriak hartu du parte ▶ 6

**TOLOSA** ▶

‘Bazen behin... gutxi gorabehera’ antzezlanak

Bihar gauean Leidor zineman ▶ 3

**VILLABONA** ▶

Hika taldeak ‘X’ antzezlanak eskainiko du bihar Gurean

Kale-antzerkia eta kafe-antzerkia teknikak uztartu dituzte lanean ▶ 4



HITZA

**ANOETA** ▶

Festa alternatiboak antolatu dituzte

EAJ-EAren jarrera salatu nahi dute ▶ 5

TOLOSALDEA ▶ AHT

# Eredu berriak lantzeko beharra azpimarratu dute

'AHTren aurkako arrazoiak eta egitasmoaren egungo egoera' izan zuten hizpide Mikel Alvarezek, Josu Larrinagak eta Iñaki Antigüedadek Kultur Etxean

LEIRE MONTES

Mikel Alvarez AHTren Aurkako Asanbladako kidea, Josu Larrinaga soziologoa eta EHU irakaslea eta Iñaki Antigüedad EHUko ikertzailea mahai-inguruan elkartu zituzten herenegun Tolosaldeko AHT Geldituli Elkarlana-k antolatutako *Abiadura Handiko Trenaz* jardunaldiek. *AHTren aurkako arrazoiak eta egitasmoaren egungo egoera* izan zuten hizpide hirurek, jendez betetako Kultur Etxeko aretoan. Joxemi Saizar Tolosaldeko HITZako zuzendariak gidatu zuen saioa.

Abiadura Handiko Trenak ingurumenaren ezezik gizarte arloan ere eragingo dituen kalteak azpimarratu zituen Alvarezek. «Oso eraso gogorra da ingurumenarentzat. Obra erraldoiek eta, ondorioz, azpiegiturek, baldintza exijenteak eta zorrotzak inposatuak dituzte. Zarata kutsadura oso handia izango da, era berean, eta sistema energetikoa erasokorra». Tolosaldean «kalteak are larriagoak» izango direla gaineratu zuen: «Txikizio larriak jasango ditu eskualdeak, Ernio magalean zulaketa handiak, lur asko hartuko luketen hondakindegia sortuko lirakeke, harrobi asko egin...». Haren esanetan, guztira 1.200 hektarea kaltetuko lituzte proiektuak, «gehienak nekazaritza lurrak».

Baina gizarte arloan eragingo dituen kalteak ere ezin direla ahaztu azpimarratu zuen. «Epe luzera benetan ondorio kaltegarriak ekarriko ditu, lurralde antolaketa ikuspegi galgarri batetik jorratzen baitu. Aireko garraioaren baldintzak lurreratu nahi dituzte, bizitza soziala aintzat hartu gabe». Haren iritzi, «euskal megahiria» sortu nahi dute: «Lurralde ikuspegi harrapatzailea da, megapoliak bihurtzea elkarrengandik urrun dauden hiriak, hausnarketarik gabe lu-



Ezker-eskuin: Saizar, Larrinaga, Alvarez eta Antigüedad. LEIRE MONTES

rraldeak xahutu». Planteamendu honen «ikuspegi ekonomizista» salatu zuen, era berean: «Lurralde erredu hau ekonomia-erantzat, garraioerantzat, teknika-erantzat pentsatuta dago, eta ez dio begirunearik adierazten bizitza sozialari. Globalizazioa eta mundializazioa areagotzen du, eta tokian tokikoa mespretxatu».

## «Funtzionala, noerantzat?»

Alvarezen ildotik jarraitu zuen Larrinagak, eta Durangon egin nahi duten merkatal zentru handi eta luxuzko etxebizitzaren proiektua —Eusko Tren dago tartean— jarri zuen adibide gisa: «Hara non herritarren proposamenak eta sentsibilizazioa beste bidetik doazenean justu kontrakoa erabakitzen duten. Dena fardel berean dator: herriari kezkatzen dizkioten gauzak desbideratu egiten dituzte, eta haiek nahi dutena egin». Era berean, lurraldea funtzioen arabera soilik, lurraldea bera kontuan hartu gabe, ezin dela antolatuta azpimarratu zuen: «Noerantzat izango da funtzionala proiektua? Gutxi batzuk erabiliko dute, baina denok ordaindu beharko

dugu. Inposatu egiten zaigu; ez digu mesedirik egiten, baina ondorioak ordaindu beharko ditugu».

«Benetako hiriaren kontzeptua» ere zalantzan jarri zuen Larrinagak: «Gune aberatsean EAEko hiru hiriburuen artean dagoen hirukian aurkitzen dira. Hortxe dago ekonomiarik dinamikoa, kulturarik berritzaileena... Tolosa bezalako hiria, adibidez. Eta hiria diot hori direlako niretzat benetako hiriak, bizimodu ruralari eta nortasunari uko egin ez diotenak».

Antigüedadek, bestalde, «horrelako proiektuak, zaku beretik aterata daudenak —nahiz eta guri ez erakutsi zaku beretik aterata daudela— aztertzea da gakoak, eztabaida ez baita treña bai ala ez. Eta proiektu horietan, AHT da egitasmorik paradigmatikoa. Urratu egiten du lurraldea; eta ez da mugatzen erredu ekonomikoa, gauza guztien gaineko ikuspegia jasotzen du. Lurra ari gara galtzen, eta lurrik gabe ez dugu nortasunik».

Era berean, gizaratean «ereduen arteko talka» dagoela eta «beste erredu alternatiboa proposatu» egin behar dela adie-

razi zuen: «'Aurreikuspenak bete egiten dira planifikatzaileek hala nahi dutelako', irakurri nuen behin. Etengabe gogo eta egin behar dugu. Begi propioak ditugu; erredu berria landu dezagun».

Eusko Jaurlaritza egiten ari den publicitate kanpaina ere kritikatu zuen: «'Bay' esateko unea iritsi omen zaigu. Orain dena da jasangarria. Baina, zer da jasangarritasuna? Zer da garapen jasangarria? Izena duen horrek ez dauka izana. Hizkuntzaren eta hizkeraren perbertsioaren aurrean gaudu; gero eta hitz gutxiago erabiltzen ditugu, eta gero eta gauza desberdin gehiago adierazten dute».

## Oraina... eta desinformazioa

Egungo egoeraz ere mintzatu ziren hiru hizlariak. Egoera larria dela azaldu zuen Alvarezek, eta Espainian gobernu aldaketa izanda ere PSOEren aldetik «aldaketa handirik ez» dutela espero esan zuen. Antigüedadek proiektua «bereiz PSOEren» dela gogoratu zuen, eta PPK «trukerako txanpon gisa» erabili zuela Jaurlaritzarekin. Larrinagaren esanetan, «badirudi orain Europan dirurik ez dagoela proiektu honetarako, beste lehentasunak daudelako. Baina kontuz ibili behar dugu, hala ere». Ildo beretik, Jaurlaritzaren aldetik «presioak areagotuko» direla esan zuen Alvarezek.

Desinformazioa ere kritikatu zuten. «Sekretismoa, jendearen parte-hartzeari oztupoak... ezartzen du sistema politikoa», salatu zuen Alvarezek. «'Zertarako nahi duzu jakin ez badizugu galdetuko?' da Jaurlaritzaren leloa. Esan 'bay'. Nola ba, ez didazu galdetu eta!», azaldu zuen Antigüedadek ironia puntuan. «Nola eman iritzia informazioa ez duzun gai bati buruz?», berretsi zuen Larrinagak.

TOLOSALDEA ▶

## 1.000 ikasle inguru 32. Eskolarteko Olinpiadan

Etzi emango zaio hasiera, Berazubín; hilaren 22a arte iraungo dute probek

L. MONTES

Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE), kirol arduradunek eta Udaleko Kirol Departamentuak antolatuta, 32. Eskolarteko Olinpiada jokatu da etzitik hilaren 22a arte. 1.000 ikasle inguruk hartuko du parte: Tolosako, Ibarako, Alegiako, Anoetako, Villabonako, Zizurkilgo, Amezketako, Alkizako, Berastegiko, Ikaztegiako, Asteasuko, Berrobiako, Adunako eta Errezilgo ikastetxeetako gazteak.

Etzi 16:00etan ekingo zaio Olinpiadari, Berazubín, dantza ikuskizun batekin. Ondoren, Triangulotik 17:00etan abiatuta, zuzia sartuko da estadiora. Atletismo probak 17:00etan hasiko dira.

TOLOSA ▶

## San Joan eta Herri Arteko Txapelketetako partidak etzi

L. MONTES

San Joan zesta-punta txapelketako partidak jokatu dituzte etzi Beotibar elkartekoek Beotibarren. 10:30ean, Asier Alberro-Borja Otaegi eta Beñat Lopez-Gorka Sanchez lehiatuko dira; 11:10ean Xabi Bildarratz eta Unai Alberro; 11:50ean, Imanol Sanchez eta Aritz Izagirre; eta 12:30ean, Joseba Zuloaga eta Patxi Plazaola.

Herri Arteko Txapelketan, Beotibarko San Sebastian-Rezola, Mujika-Orrantia eta Artetxe-Trabazos ariko dira bihar 17:30ean Zumaian bertakoen kontra.

**HITZA**, eskualdeko plaza  
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

**661 678 818**  
Toki aproposa iragartzeko

XIV ORDUKO IBILALDIA ▶



## Kultur Etxerako kartela margotzen

7x2 metroko kartela egin dute Dario Stefanou eta Enara Uribarrenek XIV orduak iragartzeko

### IRATXE ETXEBESTE

XIV Orduko Ibilaldia iragartzen duen kartela egiteko Kromata ilustrazio edo marrazketako enpresako arduradunengana jo du aurten Aralarko Adiskideak elkarteak. Bertan jarduten dute Enara Uribarren anoretarrak eta Dario-Eric Stefanou greziarrak. Enkarguz egin dute lan hori, eta «gustura» dira emaitzarekin. 7 metro luze eta 2 metro zabal dituen tela margotu du bikoteak, eskuz, XIV Orduko Ibilaldia iragartzeko; Kultur Etxean jarri dute kartel handi hori.

Tela zatia euritik eta hotzetik babesteko pintura akrilikoa erabiki dute Uribarrenek eta Stefanouk, baina «zorte txarra» izan dutela diote, aurreko asteburuan, tela Kultur Etxetik zintzilikatu zutenean haize handia egin zuelako, eta telaren puska bat hautsi egin zelako. «Etorri egin ginen zer kalte izan zuen ikustera, eta azkenean josi egin behar izan genuen azpiko aldea. Nire izena, Enara argi ikusten da orain ere, baina Darioarena gordeta geratu da», zioen Uribarrenek barrez. Greziarraren izena agertzen zen iskina tolestuta egonagatik, Stefanouri ere badagokio, hortaz, lanaren egiletza.

XIV Orduko Ibilaldia iragartzen duen kartela egiteko arduradunek marrazkia egina eman ziotela diote biek. «Zirriborro gutxi batzuk egiten aritu ginen: bastoia zuzen jarri be-

rra» izan dutela diote, aurreko asteburuan, tela Kultur Etxetik zintzilikatu zutenean haize handia egin zuelako, eta telaren puska bat hautsi egin zelako. «Etorri egin ginen zer kalte izan zuen ikustera, eta azkenean josi egin behar izan genuen azpiko aldea. Nire izena, Enara argi ikusten da orain ere, baina Darioarena gordeta geratu da», zioen Uribarrenek barrez. Greziarraren izena agertzen zen iskina tolestuta egonagatik, Stefanouri ere badagokio, hortaz, lanaren egiletza.



Stefanou eta Uribarren, XIV Orduko Ibilaldiko kartela iragartzen. HITZA

harrean okertuta probatu, alde batean, bestean... baina gainerakoan marrazkirik ez dugu sortu behar izan». Enkarguz egiten dituzten lan gehienetan, ordea, haiek dira marrazkiak egiten dituztenak. Hiru egunetan egin zuten XIV Orduko Ibilaldia iragartzen duen kartela, eta «marrazteak baino denbora gehiago eman zigun margo erabat lehorteak». Uribarrenen gurasoen garajejan ibili zi-

ren biak lanean, Donostian, bizi diren etxean, «deku handiegirik ez» dutelako.

Norberak bere jaioterrian ekin zion diseinua ikasteari, eta sakontzeko asmotan Ingalaterrara joanak zirela egin zuten elkar Uribarrenek eta Stefanouk. Hala sortu dute Kromata. «Erronka» gisa ikusten ei dute enkargu bakoitza, eta Ingalaterran bezala, gogotsu daude Euskal Herrian ere lan egiteko.

### AHOLKUA ▶ ELIKADURA

Martxaren bezperan goiz afaleduko dugu, arratsaldeko zazpiak aldera, gauko bederatzia aldera oheratzeko. Menu adibide bat hau izango litzateke: espagetiak, barazkiak, oilaskoa eta fruta. Gosaria, goizeko hiruretan, arina izango da: te edo kafe infusioa, baso bat esne edo jogurta eta zukuak.

Ibilaldian zehar, hidratatu eta jan egin behar dugu erregularitasunez. Antolaketak ibilbidean zehar janaria eta edaria emateko lekuak jarri arren, nahasketa energetikoko kantinplora (ura, gatzak eta glukosa) eta fruta lehor batzuk edo zereal barritak eraman behar ditugu beti gainean. Gerriko poltsa edo motxila txiki bat nahikoa izango da janariak, arropa eta behar ditugun beste gauzak eramateko.

RAMON GARATE ▶ EUSKAL MENDI  
FEDERAZIOKO MEDIKUA

KULTURA ▶

## 'Bazen behin... gutxi gorabehera' bihar

Leidor aretoan eskainiko du Kanpingags konpainiak antzerki emanaldia 20:00etatik aurrera; sarrerak Kultur Etxean dira

### I. ETXEBESTE

«Mundu honetatik tamalez joandako naturzale baten offeko ahotsarekin hasten da *Bazen behin... gutxi gorabehera*». Otsoen mundu harrigarriari buruzko aldarrikapenarekin. Eszenatik, kamara motelean, Txanogorritxuren atzetik joango dira hiru otso. Hasierako sarrera amaitzean, ohiko hiru saltzaile betiko bilduma saltzen saiatuko dira ikusleei: haur-ipuinen ikuspegitik begiratuta idatzita dauden horiek. Baina harri eta zur geratuko dira otsoak greban daudela jakiten dutenean. Otsoak aspertuta daude, izan ere, gaizto izateaz. Inork ez dituelako aintzat hartzen.

Errauskine, Hamelingo txistularia, Hansel eta Gretel... ohiko ipuinak antzeztuko dituzte aktoreek ikus-entzuleen aurrean. Haurrak beharrean, helduak izango dira, ordea, taula-

ren bestaldekoak. Haur kontuak izanagatik, «helduentzat bakarrik» direlako.

Puente de Deusto argitaletxea da ipuin horien sortzaile. Aholkatu egingo die ikusleei argitalpen berria erosteko, «edizio berria berrikusia dagoelako eta aurrekoen aldean, astakeriarik ez duelako biltzen». Baina Puente de Deusto argitaletxeak ez du nahikoa ipuinen edukien berrikusketa etikoa egin duen edizio bat aurkeztearekin, eta kezka agertuko du gaur egun haurrei ipuinak kontatu behar zaizkien moduaren inguruan. Ipuinen argitalpenarekin batera, gaur egungo gurasoei zuzendutako eskuliburua ere banatuko du argitaletxeak, horregatik.

Ikuskizunaren bukaera hasieran agertutako hiru otsoek egingo dute. Azken orduan, emanaldian agertutako ipuin guztien azken bertsoa egiten ahaleginduko dira: *Pedrotsua*

eta *baboa*, *zazpi otsakumeak* eta *Otsakumegorritxu* eta *amona basatia*.

### Ikuskizun ederra

Tolosako Leidor aretoan eskainiko dute bihar *Bazen behin... gutxi gorabehera* antzerki emanaldia. 22:30ean hasiko da Kanpingags konpainiaren ikuskizuna, eta sarrerak salgai daude Kultur Etxean.

Kike Diaz de Radak, Nagore Aranburuk eta Oscar Terolek sortutako antzezlanaz Asier Hormaza, Kandido Uranga eta Joseba Apaolaza aktoreek antzeztuko dute. Hirurak izango dira otsoen azalean sartuko direnak, eta era berean, Loti Ederria, Txanogorritxu, Hamelingo txistularia eta beste hamaika pertsonaia interpretatuko dituzte. «Disney-ren klasikoetan azaltzen direnak alde batera utzi, eta beste modu batera», hori bai.

JUDO ▶

## Gipuzkoako Txapelketan zazpi domina lortuta

Tolosako alebin mailakoek lortu dituzte: urrezko 1, zilarrezko 1 eta brontzezko 5



Tolosako judokak, Gipuzkoako Txapelketaren ostean. TOLOSALDEKO HITZA

### I. ETXEBESTE

Gipuzkoako Judo Txapelketan hartu zuten parte Tolosako alebin mailakoek maiatzaren 1ean Lezon, eta zazpi domina lortuta itzuli ziren etxera: urrezkoa lortu zuen Maddi Amianok, zilarrezkoa Olaia Lizartzak eta brontzezkoa Nere Carrerak, Pablo Azurzak, Aitor Landak, Samuel Subijanak eta Iñaki Lopetegik. Malen Iturralde, Oier Arruebarrena eta Imanol Luque ere brontzezko

domina lortzekotan izan ziren, baina bosgarren postuan geratu ziren azkenean.

Bestalde, Joel Ricok, Gurutz Gorrotxategik, Unai Arroyok, Gorka Sobrinok, Markos Gaztañagak, Ibon Elolak, Iñigo Lopezek, Unai Amundarainek, Oscar Etxebestek eta Unai Sarrategik ere hartu zuten parte txapelketan, eta dominarik lortu ez bazuten ere, lan ona egin zuten guztiak. Judoka asko aritu zirela eta oso maila altua izan zela adierazi dute.

## AIZTONGO ▶

**Bordeleko ferira irteera antolatu du Aiztondok**

Maiatzaren 22an irtengo dira; izena emateko azken eguna maiatzaren 14ean da

G. AZKUE

Maiatzaren 22rako irteera antolatu du Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak. Urtero Bordelen antolatzen den feriara joateko aukera izango dute izena ematen dutenek.

Feria honetan, nazioarteko pabilioia, munduko 40 herrietako azokarekin; ibilgailu pabilioia edota nekazaritza aretoa aurki daitezke, besteak beste.

Interesatua daudenak, ordainketa egiteko eta fitxa betetzeko ondoko lekuetara joan beharko dute: maiatzaren 17an Larraulgo liburategian, 17:30etik 19:30era. Maiatzaren 18an Adunako liburategira, 17:30etik 19:30era. Eta Alkizako liburategian, 17:00etatik 19:00etara. Izena emateko NAN zenbakia eman behar da eta epea bihar bukatuko da, Aiztondoko egoitzan edo 943 69 39 30 telefonoan.

## VILLABONA ▶

**Fleming-eko gurasoen eskutik, gaur hitzaldiak**

G. AZKUE

Flemingeko guraso elkarteak, drogomenpekotasunaren inguruan hitzaldiak antolatu ditu gaurko Arroan. Lehengoan, 14:30etatik 16:00etara izango da seme-alaba txikiak dituzten gurasoentzat. Eta bigarrena, 18:00etatik 19:30era izango da, nerabezaro aurreko gazteen gurasoentzat. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

## VILLABONA ▶ KULTURA

**'X' antzezlana taularatuko du bihar Hikak Gurean**

22:30ean hasiko da ikuskizuna Mikel Laskorain aktorea protagonista dela

GARAZI AZKUE

La Navaleko ontziolan urte luzez lan egin ondoren, kale gorrian gelditu zen. Hori da, ikuskizun honetako protagonista, Manuel Tejero Benitez, Xen istorioaren abiapuntua.

Hika teatroak, *Ai Ama!* lanaren ondoren, antzezlana hau jarri du abian. Mikel Laskorain aktorea da obra honetako protagonista, istorio honetan agertuko den pertsonaia bakarra. Laskorainek emango dio X-i bizitza, pertsonaia bitxia da.

Aktorearen esanetan, «ordena honetan, garagardoa, sexua eta futbola atsegin dituen tipoa da, garagardo gabe ez baitago ez sexurik ezta futbolik ere».

Eta horrelako pertsonaiak «gaur egungo gizartean egon badaude».

Ikus-entzunezko muntaia antolatu dute, irudiek eta Joxan Goikoetxearen musikarekin. Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrek egindako lana da, Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean.

Betiko antzerkia, kale-antzerkia eta kafe-antzerkiko teknikak uztartu ditu Hika konpainiak antzezlana honetarako. Parsarte gazi-gozoak erakusten dituen komeria gordina ikusteko aukera izango da, bihar, Villabonako Gurea zineman, 22:30etik aurrera. Hika teatroaren X antzezlana taula gainean izango da.



Mikel Laskorain da taula gainean dagoen aktore bakarra baita. HITZA

## FITXA TEKNIKOA ▶ X

**Egileak.** Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrea.  
**Antzezlea.** Mikel Laskorain.  
**Eszenografia.** Agurtzane Intxaurrea.  
**Argitazpena.** Xabier Lozano.  
**Jantziak.** Ramon Garcia Zabalegi.

**Musika arduraduna.** Joxan Goikoetxea.  
**Ikusentzunezkoa.** Koldo Leniz.  
**Zuzendaria.** Agurtzane Intxaurrea.  
**Gurea aretoan,** 22:30ean.

## ENEKO SORZABAL ▶ IRIARTE JATETXKO JABE BERRIA

**«Oso herri irekia da, ez gaituzte arrotzen moduan hartu»**

Zizurkilgo Iriarte jatetxea ireki dute berriz ere, Donostiako hiru gaztek kudeatuko dute, hemendik aurrera, herriko taberna. Hitza, jatetxeko sukaldariarekin egon da solasean, Eneko Sorzabal.

**Nola iritsi zarete Donostiatik Zizurkilera?**

Ostaleritzan urte dezente daraguru hirurok. Negozio propioa izan ala ostaleritza uztearen artean erabaki behar genuen. Naiarak eta nik Zegamako jatetxea hartu genuen. Hura bukatu zenean, Do-

nostialdera gerturatu nahi genuen, eta, inguruko herrietan begiratzen ibili ondoren, Zizurkilgoa gustatu zitzaigun. Bi pertsonen artean larri ibiliko ginela eta, Xabierri esan genion ea etorriko zen.

**Zer moduz zizurkildarrekin harremana?**

Oso ongi. Oso herri irekia da, ez gaituzte arrotzen moduan hartu.

**Zer eskaintzen duzue?**

Karta txiki bat jarri dugu. Bestalde, menuarekin lan egiten dugu gehienbat, asteburuetan



Xabier Zaldua, Naiara Landazabal eta Eneko Sorzabal. G. AZKUE

ere bai. Orain gainera, menu berezia jarriko dugu asteburuetarako. Horretaz gain, plater konbinatuak eta ogitarakoak ere ematen ditugu. Bi asteburuetan bete egin dugu jantokia eta oso gustura gaudete.

**Gaur afaltzera etorriko naiz. Zer prestatuko didazu?**

Iberiko batzuk eta etxean egindako fritoak hasieran. Ondoren, Ostatu txipiroiak, nik osatutako platera. Bigarreneko zaharraren haragia. Eta bukaran, Naiarak egindako gazta tarta edo arroz esnea.

**Deskribatu Zizurkil.**

Herri irekia eta giro handiko herria, bizia duen herria da. ◀



**www.tolosaldeko hitza.info**

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ANOETA ▶ FESTA ALTERNATIBOAK

# Festa alternatiboak antolatu ditu herritar batzorde batek

Azken urtean EAJ-EA koalizioak izan duen jarrera salatu du batzordeak, eta informazioa ezkatatu eta herritar batzuk alde batera uzteaz salatu du Udala



Festa Alternatiboen Batzordeak egindako aurkezpenera herritar asko hurbildu zen. BIANDITZ IRAOLA

## BIANDITZ IRAOLA

Anoetako jaiekin batera festa alternatiboak izango dira aurtun, horretarako sortutako batzorde batek antolatuta. Ekainaren 5ean hasiko dira, Koadriren Egunearekin batera, eta hurrengo egunean —ekainaren 6an— eta 9tik 13ra izango dute jarraipena.

Festa Alternatiboen Batzordeak azaldu duenez, orain urtebete EAJ-EA koalizioak alkatetza hartu zuenetik herritarren hainbat eskubide urratu

dituzte, eta horregatik erabaki dute festa alternatiboak antolatzea.

Pentsaurrean azaldu zuten, hauteskundeetan «demokrazian oinarritzea den boto eskubidea urratu zuten, eta honen ondorioz 409 anoetar beraien ideientatik hitzik gabe eta baztertuta utzi zituzten».

Horretaz gain koalizioari gazteen etxebizitza eskubideekin jolasean aritzea leporatzen dio batzordeak, «informazioa ezkatatu eta gezurrak esanez. Ondorioz, gazte hauek ez daki-

te zertan den beraien etxebizitzaren azuia». Babes ofizialeko etxeen auzian ezezik, Abiadura Handiko Trenarenean ere informazioa ezkatatzea egotzi dio batzordeak alkateari.

Informazioa ukatzeaz gain, gainera, hainbat herritarrek, eragilek edo taldek antolatutuzen dituzten ekimenen inguruko egitarau, kartel edo pankartak kentzeko agindua eman dutela diote: «Agindu honekin herritarrok eta herriko eragile ezberdinok trabak besterik ez ditugu aurkitzen ekimen herri-

tarrak aurrera eramateko. Dirudenez, EAJ-EA koalizioak ez du nahi Anoeta ekimen handiko herria izaterik».

Arazoak arazo, elkarrizketa irekia zegoen Udala eta batzordearen artean, eta festa alternatiboak antolatu ahal izateko pilotaleku ondoko futbito eremua uztekoan ziren. Azken orduan, ordea, Udalak barrakak bertan jartzea erabaki du.

Batzordetik salatu dute aitzakia hutsa dela, oraindik ez dagoelako zehaztuta ze barrakak ekarriko dituzten.

## EGITARAUA ▶

### EKAINAK 5, LARUNBATA

**10:00.** Kalejira segariariekin, herriko plazatik Argindegi atzeko zelaira.

**10:15.** Sega apustua herriko hiru bikoteren artean, trikitalari eta bertsolariek alaituta.

**23:00.** Selektah Sound Sistem-en eskutik *hip-hop* kontzertua.

### EKAINAK 6, IGANDEA

**10:00.** Herriko baseritarren, artisauen eta artisten azoka eta lanabes zaharren erakusketa.

**11:00.** Xibak antolatuturiko herri kirol txapelketa.

**20:00.** Erromeria Beñat eta Lierni trikitalariekin.

### EKAINAK 9, ASTEZKENA

**18:30.** Festa alternatiboen hasiera, txupinazoarekin, baztertutako eta zinegotzien pregoarekin.

**19:00.** Udaletxe aurrean *EAJ-EA: urtebete anoetarron eskubideak urratzen* lelopean kontzentrazioa. Ondoren trikopotea.

**23:00.** Musika emanaldia herriko disko jartzaileen eskutik

### EKAINAK 10, OSTEGUNA

Mozorro eguna izango da, eta ekitaldietan parte hartzeko beharrezkoa izango da mozorrotzea.

**16:00.** Ume jokoak

**17:00.** Pailazoak. Ondoren buruhandiak txistulariekin.

**20:00.** Tortila txapelketa.

**21:00.** Herri afaria.

**23:00.** Ezeinen kontzertua.

### EKAINAK 11, OSTIRALA

**19:00.** Sagardo dastaketa bertsolari, trikitalari, txalpartari eta albokariekin.

**21:00.** Bertso afaria Amets Arzallus eta Sustrai Colinarekin.

**Ondoren.** Manifestazioa *EAJ-EA, anoetarron eskubideak errespetatu* lempaean.

**23:00.** R, Ileon eta Gaizkiñeren kontzertua. Argitzean I.

Kaltzontzilo eta Kulero Karrera.

### EKAINAK 12, LARUNBATA

**14:30.** Gazteen bazkaria.

**18:00.** Gazteen kalejira herriko kaleetan barrena.

**21:00.** Herri afaria.

**23:30.** Gazteen dantza emanaldia.

**00:00.** Nekin musika taldearen kontzertua izango da goizaldera arte.

### EKAINAK 13, IGANDEA

**16:30.** Mus eta toka txapelketa.

**18:00.** Poteoa txarangak alaiturik.

**19:00.** Danborrada.

**21:00.** Danborjoleen afaria Kuku elkartearen.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegia-Altzo-Amezket**-**Abaltzisketa-Albiztur.** Osasun zentroa: 943 65 32 12

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03.

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarralde.** Osasun etxea: 67 24 11

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

### Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak:

46 11 11

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispensarioa:

67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Ur kontzertua: 902 30 22 22

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 943 67 25 36

▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88

- 943 - 65 14 25

▶ Ertzaintza: 943 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

### Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerbitzuen

mankomunitatea: 69 39 30

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Taxia: 67 04 20

### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Iturrioz I., Euskal Herria 3, (Ibarra). 943 67 09 15.

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publici@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aiztondo.** 687 41 00 22.

villabona\_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaldia.** 687 41 01 18.

anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarralde.** 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

## IRAGARKI LABURRAK ▶

### LANA

**Lan eskaria.** Neska gazte bat eskaintzen da denda edo taberna batean lan egiteko. Tf: 615 71 76 79.



IBARRA ▶ KULTURA

# Kaxkubiren eskutik, 'Divinas' antzezlana bihar Kultur Etxean

Oihulari Klown taldearen ikuskizuna 20:00etan hasiko da; zenbait pertsonai historiko terapian jartzen dira bertan



Divinas ikuskizuneko aktoreak. Bihar Kultur Etxean izango dira. HITZA

DANI GIBELALDE

Kaxkubi Emakumeen Kultur Elkarteak biharko Oihulari Klown taldearen azken antzezikizuna, *Divinas* izenekoa, antolatatu du. Benito Izagirre kultur etxean izango da emanaldia, 20:00etan.

Oihulari Klown-ek *Divinas* azkeneko ikuskizunarekin Jesukristo, Maria Amabirjina edota Maria Magdalena bezalako pertsonai historikoak terapia batean jartzea nahi du. Baina katolizismoan horren garrantzi handia duten pertsonai hauen presentziak ez du esan nahi ikuskizun horrekin erlijio katolikoaz edota berai praktikatzan dutenaz barre edota irain egin nahi dutenik.

Antzerkiari dagokionez, Maria Amabirjina, zeruko etxeko-

FITXA ARTISTIKOA ▶

**Egilea.** Virginia Imaz.  
**Aktoreak.** Virginia Imaz, Laura Lopez eta Txefo Rodriguez.

**Argiztapena.** Inma Irazustabarrena.

**Musika.** Txefo Rodriguez.

**ekoizpena.** Oihulari Klown.

andrea, «ama perfektuaren adibidea da, bere semearen eta ondokoan zaintzan lan egiten duena». Jesukristo, ezezkoa inoiz esan ezin daitekeen giza-semeak, erlazio sentimental bat izateko beldur da, «bera Mesiasa baita eta laster hil egingo dela dakielako». Maria Magdalenaren bizimodua estresak jotako emakume batena da, bere helburuan mugarik, denborarik, espaziorik edota gorputzik gabe murgiltzen baita.

Emakumeen arazoez kontzientziatzea bultzatzen du ikuskizunak, betiere bai ikuspuntu barregarri bat aintzat hartuta. Ikuskizuneko egile eta zuzendari Virginia Imazen hitzetan, «norberaren buruaz barenre egitea da helburu nagusietako bat». *Divinas* helduei zuzenduta eta Klown teknikan oinarriturikoa da. Hiru protagonistek «paralelismo handia» dute gaur eguneko gizon eta emakumeekin alderatuz.

LEABURU ▶

## 'Sahararren maratoia' bideoa bihar gazte gelan

*Sahararren maratoia* izeneko bideo emanaldia eskainiko dute bihar gazte gelan, 20:00etatik aurrera. Sahara-ko basamortuan egiten den maratoia aprobetxatuz hango egoeraren berri ematen duen bideoa da. Besteak beste, sahararrek 28 urtetan bizi izan duten maratoiaz hitz egiten du bideoak. Bizi baldintza eskasia, hezkuntza eskasia, beste lurraldeen laguntza bizi izan beharra... azaltzen dira bideoan. Bestalde, uztaila eta abuztuko hilabeteetan haur sahararrak Leaburu eta Txaraman izango dira. Haur horiei haien herriko gatazka hilabete horietan ahazteko aukera eman nahi diete. Esperientzia horretan parte hartu nahi duenak udalarean informazioa lortu, edo ostiralean bideo emanaldira joan daiteke.

IBARRA ▶

## Pegatina bildumazaleen erakuseta

Gaztetxean ikusgai dago pegatina bildumazaleen argazki erakusketa. Segurako gizon batek ipini du erakusketa. 1.000 pegatinatik gora ikus daitezke bertan, gai askotakoak: gazteak, errepresioa, internazionalismoa, emakumeen borroka, alderdi politikoak, langileria... Arratsaldeetan dago zabalik erakusketa, eta Gaztetxean bihar iluntzera arte egongo da ikusgai. Igandean, egun osoan, Pegatina III. Topa-Festa egingo da; panelak kalera atera, eta trukaketak egin ahal izango dira. Besteak beste, herri bazkaria eta balorazioa ere egingo dute.

BERROBI ▶

## Mus Txapelketa eta sukaldaritza erakusketa gaur

Herriko hainbat taldek antolatutako Kultur Astearen baitan, Mus Txapelketa izango da gaur Begi-Gorri gaztetxean, 17:00etik aurrera. Sukaldaritza erakusketa Bide-Ona elkarte gastronomikoa izango da 18:00etan, Felix Belauntzararen sukaldariaren eskutik. Bestalde, haurtzaindegi zerbitzu berezia egongo da gaurkoan.

IBARRA ▶ KULTURA

## Giro ona eta partaidetza zabala Hauspoaren Olinpiada Txikian

Xeplako taldeak lehen bi postuetan geratu dira; Ibarako Kirol Elkarte, hirugarren

D. GIBELALDE

Maiatzaren 1, 2, 8 eta 9an jokatu zen Hauspoaren hamaikagarren Olinpiada Txikia. Xeplako bi talde, I.K.E. (Ibarako Kirol Elkarte) bi, Sendi Ekintzako bi, Uzturpeko bi, Bizi-Nahi, Gazte Asanblada, Kixkilak, eta merkatarien taldea aritu dira lehian egun horietan. Azkenean, Xepla B taldea gailendu zen txapelketan, Xepla A taldea izan zen bigarren, eta I.K.E.-ko A taldea hirugarren. «Giro ona, eta partaidetza zabala» izan dela azpimarratu dute antolatzaileek. Taldeek «seriotasunez» hartu dute txapelketa, «jende berriak parte hartu du, eta hori garrantzitsua da hurrengo urteei begira».

Hilaren 1ean, kartetan (esko-ba eta mus) aritu ziren Gaztetxean. Hurrengo goizean, bolotetan eta tokan parte hartu zuten, Emeterio Arresen, I.K.E.-k antolatuta.

Hilaren zortzian, joko bat antolatatu zuen gazte asanbladak. Asmakizun desberdinez eta esaera zaharren zatiez osatutako jokoa izan zen. Ondoren, talde bakoitzeko bana hartuta, ardo dastaketa ekitaldi barregarria egin zuten.

Joan den igandean, mendi ibilaldia egin zuten Sendi Ekintzak antolatuta. Belabieta, Berrobi, Leaburu, eta Idoagatik barna. Sukaldaritza lehiaketan, baratzuri-zopa egin zuten, eta jarraian, ohi bezala, elkarrekin bazkaldu zuten.



Igandean taldeek elkarrekin bazkaldu zuten plazako karpan. HITZA



Xepla taldeko irabazleak, garaikurrak eskuan dituztela. HITZA

IKAZTEGIETA ▶ GIZARTEA

# Autoestima hobetzeko tresna psikologikoak aztergai

Zailtasunei baikortasunez aurre egiteko moduak azaldu zituzten hitzaldian



Diapositiben laguntzaz eskaini du hitzaldia Xabier Arrazola psikologoak. O. ESKITXABEL

**OLAIA ESKITXABEL**

Autoestimaren garrantzia izan zuten hizpide atzoko hitzaldian kiroldegian; bizitzako gorabeherek etsipena eta depresioa eragiten dute askotan. Xabier Arrazolak azaldu zuenez, guzti horrek autoestimarengan eragiten du zuzenki.

Atzoko jardunaldian zehar, autoestima hobetzeko, zailtasunei baikortasunez aurre egiteko, azken batean, hobeto bizitzeko, tresna psikologikoen berri eman zuen Arrazolak.

Jendeak adi jarraitu zuen hitzaldia; amaitzean, galdere, kezka... ugari agertu zituzten, gainera.

**XABIER ARRAZOLA** ▶ PSIKOLOGOA

## «Autoestima gizakion motorra izaten da»

Autoestimaren inguruko hitzaldia zuzentzen aritu zen Xabier Arrazola psikologoa.

**Nola definituko zenuke autoestima?**

Autoestima txikitatik, zortzi urte bitarte, ikasten dugun zer-bait da. Eta gure motorra izaten da. Askok zigortu izan diren pertsonak autoestima baxua badute, arazoak zailtasunez ikusiko dituzte, ezkorrak izango dira. Ezkorra izan eta autoestima baxua izanez gero, oso posiblea da depresioan erortzea. Autoestima buruan egiten dugun epaiketarik handiena da.

**Autoestima kaltetzen duten mezu negatiboak aldatu al daitezke?**

Autoestima ez da gauza integrala; gorputzaren autoestima arazoa, nortasunaren autoestima arazoa.... alor desberdinetan kokatu daitezke autoestima arazoak. Baliteke pertsona batek pertsonalki autoestima ona izatea baina lanean, adibidez, autoestima baxua erakustea. Autoestima indartzeko lehenik eta behin autoestima gabezia dagoen uneak identifikatu behar dira; hurrengo pausua, egoera ho-

rietan jarrera aldatzearen inguruko burutazioak izatea eta, azkena, ekinean jartzea.

**Heziketak eragin zuzena al du autoestimarengan?**

Horrela da. Orain dela 40 urte inguru heziketa gogorra izaten zen, neska-mutleki ez zieten uzten pertsona bezala lasai eta libre sentitu eta azaltzen. Egun, haurrek hitz egiten dutenean, gurasoak ixildu behar dira. Aberastasun egoera batean bizi gara, komunikazioa galtzen ari da eta gurasoek ez dute nortasuna indartzeko lanerako denborarik hartzen. ◀



O. ESKITXABEL

**ORENDAIN** ▶

## San Isidro egunerako deia luzatu du Udalak

San Isidro egunerako bazkaria antolatu dute. Udalak bazkaria ordaintzeko laguntza emango du; falta dena bakoitzak ordaindu beharko du. Etzi, larunbata, meza izango da 12:00etan San Sebastian ermitan; ondoren, 14:00etan bazkaria Ostatuan. Izena emateko azken eguna gaur izango da; horretarako, udaletxera (943- 65 40 64) edota Ostatura (943- 64 30 48) deitu daiteke.

**ALEGIA** ▶

## Lourdesera bidaiari antolatu du Parrokiak

Elizbarrutiko gaixoen Lourdeserako erromesaldiarekin bat eginik, bidaiari antolatu du Alegiako Parrokiak maiatzaren 22 eta 23rako. Interesatuak 105 euro ordainduko dituzte; horrekin bidaiari gasteak eta hoteleko bi eguneko egonaldi osoa ordainduko dute. Informazio gehiagorako deitu: 943- 65 30 13 (Franconi Fundazioa), 943- 65 12 14 (Milagros Plazaola) edo 943- 65 40 71ra (Jose Ermina).

**ALEGIALDEA** ▶

## Gimnastika eta erlajazio saioa adinekoentzat

Orendainen gimnastika saioa izango dute Erretore etxean adinekoek 16:00etatik 17:00etara bitartean. Ikaztegiatan, berriaz, erlajazio saioan izango dira adinekoak eskolan 16:30etik aurrera.

**MANDIO** ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

**Tolosa.** Korreo kalean 70 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Laskorain kalean etxebizitza ugari salgai, 3 gelakoak 34.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Erremontari kalean apartamentuak bi logela eta logela bakarrekoak. 2 logelakoak 26.500.000 pzt eta gela bakarrekoak 23.500.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurre auzoan etxe abikia salgai; lorategia, terraza eta bimenetaz hornitua. Polita. 76.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Foruen etorbidean aparteko etxebizitza, garaje marraekin; bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Kondeko Aldapan etxebizitza salgai, 90 m<sup>2</sup> koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Trianguloan garaje marra salgai. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Solana kalean etxebizitza salgai; bista ederrak. Berritzeko. 23.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 33.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Alegia.** Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.  
**Alegia.** Bigarren eskuko etxebizitza salgai. Mandio. 669 87 19 09.  
**Zizurkil.** Etxebizitza salgai, garajea, bokoa eta baratza. Bista zoragarriekin. 40.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Lasarte.** Etxebizitza berria 98 m<sup>2</sup>koa; garaje ibiarekin eta 22 m<sup>2</sup>ko terrazarekin. 57.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Leitza.** Etxebizitza salgai. 21.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Areso.** 600 m<sup>2</sup>ko lur saila salgai. Etxe bifamiliarrak egiteko. 669 87 19 09.

**Elduain.** Etxe abikia 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa inguruan.** Borda salgai. 4.000 m<sup>2</sup>ko terrenoarekin, zuhaitzez inguratuta. Bista ederrak. 20.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Aia.** Azken etxebizitza. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelatako apartamentuak; garajea aukeran. 29.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Gaintza.** Etxe bifamiliarrak eraikitzen ari dira. 39.800.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Corella.** Etxe abiki rustiko berriak, portxearekin, 2 gela, bainua eta sukalde horritua. Berria. 1.000 m<sup>2</sup>ko terrenoarekin. Mandio 669 87 19 09.  
**Aro.** Errioxan etxebizitza salgai, 75 m<sup>2</sup>-

koa eta hiru gelakoa 16.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.  
**Gorriti.** Etxe rustiko familiabakarrekoak salgai, 4 gelakoak, 3 bainugelak eta 100 m<sup>2</sup>ko bi solairukoa; 350 m<sup>2</sup>ko lursailarekin. Mandio 669 87 19 09.  
**Gorriti.** 1.500 m<sup>2</sup>ko lur saila salgai. Mandio 669 87 19 09.

**LOKALAK**

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. 669 87 19 09  
**Tolosa.** Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. 669 87 19 09.

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Abeltzasketa.** San Isidro eguneko bazkarirako izen-ematea Estanko tabernan (943-65 32 83).  
**Berrobi.** Mus txapelketa Begi Gorri gaztebexan 17:00etan eta sukaldaritza erakusketa Bide Ondo elkartean 18:00etan.  
**Elduain.** San Isidro eguneko bazkarirako txartelak salgai udalebexan eta kontzejuan.  
**Ibarra.** Garagardo Festa gaur 18:00etatik 24:00etara. Iraola eta Pagadiren show-a karpan 21:30ean.  
**Tolosa.** *Bazen behin... gutxi gorabehera* antzezlan bihar Leidoren 22:30ean.  
**Tolosaldea.** Bilera informatiboa ganadu elkarreetako kide, Lurgintzako bazkidee eta sektorean interesa dutenentzat. Bihar 12:00etan Azpeitiko Betharram ikastetxean, Lurgintzaren aurrealdean.  
**Tolosa.** Udal Musika Eskolan aurrematrikula egiten ari dira 10:00etatik 13:00etara.  
**Tolosa.** *Hip-hop* festa bihar

Maskor tabernan 23:00etan: Dj Krug, Dj VoodooX, mikro irekia.  
**Orendain.** Helduentzako gimnastika saioak Rakel Baz fisioterapeutarekin. Erretore etxean 16:00etatik 17:00etara.  
**Zizurkil.** Loatzo musika eskolako haurren kontzertua bihar 19:00etan Atxulondon.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Alejandro Gonzalezen margoak ikusgai Jubilatu Elkartean: olioak eta akrilikoak.  
**Hernialde.** Olivia Sanchezen akuarelak Ostatuan.  
**Ibarra.** Nazio Mailako III. Pegatina Mostra Gaztebexan 19:00etatik 21:30era  
**Tolosa.** Anjel Cuerdoren argazki erakusketa Aranburu Jauregian ekainaren 12a bitarte.  
**Tolosa.** Javier Sotaren margolanak Lanbroa tabernan.  
**Tolosa.** Maribi Iparragirrerren pirograbatuak Saikin tabernan.  
**Tolosa.** Kubako haurren marrazkiak Kultur Etxean.  
**Tolosa.** Manuel Arretxeren margolanak Sorron dendan.



**Javier Sotaren koadroak**

**TOLOSA ▶** Javier Sota beasaindarrak bere margolanak ditu ikusgai Lanbroa tabernan. Guztira dozena bat koadro dira eta gai aldetik paisaiak dira nagusi. Hilaren bukaera arte egongo dira zintzilik Lanbroan. Argazkian, pilotarien serie bat. JOXEMI SAIZAR

**HITZALDIAK**

**Anoeta.** Europako hauteskundeak direla-eta, Herritarren Zerrenda (HZ) hautesle elkartean hitzaldia udalebexan 20:00etan  
**Berastegi.** Kutxaren eskutik, *Nola ezagutu zahartzaroko gaixotasunak eta horiei aurre egiteko moduak* hitzaldia eskainiko du Pablo Mendia adituak, 17:30etik aurrera Gaztainondo jubilatutako elkartean.  
**Tolosa.** AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako jardunaldien barruan, *AHTren proiektua eztabaidagai* bihar Kultur Etxean 20:00etan. Partaideak: alderdiak eta sindikatuen ordezkariak. Aurkezlea: Galtzaundi aldizkaria.  
**Villabona.** Flemingeko Guraso Eskola Agipad-en eskutik: *Garapen sozio-afektiboa eta 6-7 urtekoekin programa* 14:30etik 16:00etara eta *Drogak* (preadoleszenteen gurasoentzat) 18:00etatik 19:30era Arroako eskolan. Haurtzaindgi zerbitzua izango da.

**ZORION AGURRAK ▶**



**ZORIONAK PRINTZESA**

**Laida Baron Lasa (Irura).** Gaur 3 urte. Kristina, aita, ama, aitona eta familia guztien partetik. Muxu bat Leire eta Iratiren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Mikel Loidi Tolosa (Amezketza).** Dagoeneko 18 urte! Zorionak familia guztiaeren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Josu Molinero (Ibarra).** Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Iradi Sagredo Tolosa (Anoeta).** Gaur 2 urte. Zorionak osaba, izeba eta aitona-amonaren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Leire Garcariena (Berastegi).** Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**

**Arantza'bar Ion Ugutz**  
 'Mate'. Gaur 61 urte. 'Abe' zure illoban eta ebekoen partez 'zorion berenak'.



**URTE ASKOAN**

**Aupa Unai.** Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**

**Ixiar (Tolosa).** Zorionak eta beste hainbeste bete ditazula.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)**  
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!